

Larunbatak

JON ARRETXE

ELKAR

Ander F.

Aixerrota BHI, 2013-14

AURKIBIDEA

Aurkibidea	1
Jon Arretxe	2
Aurkezpena	2
<i>Larunbatak</i>	2
• Kokapena	2
• Gaia	2
• Argumentua	3
• Istorioa	3
• Egituraketa	3
• Pertsonaiak	4
• Baliabideak	4
Iritzia	5
Bibliografia	6

Jon Arretxe

1963an Basaurin jaiotako idazlea, euskaraz argitaratu ditu bere obra gehienak. Euskal Filologian doktorea eta Heziketa Fisikoko lizentziatua izateaz gain, piano eta kantuko karrerak lortu zituen Gasteiz eta Bilboko kontserbatorioetan. Idazle polifazetiko honek zenbait molde jorratu ditu, hala nola, narrazioa (*Larunbatak*, *Ostegunak*, *Zazpi kolore...*), nobela (*Urrezko triangelua*, *Kleopatra*, *Manila konexioa ...*), biografia (Txomin Agirre) eta Saiakera (Basauriko euskara), adibidez.

Aurkezpena

Txo txakur gaztea bere jabe Santirekin ondo konpontzen zen, jabearen etxera pisukideak kontratatutako neskamea heldu arte. Horren ondorioz, Txo etxetik ihes egin eta kale-txakur bilakatu zen. Kanean bizi zelarik, bizitzari buruz zuen ikuskera aldatuz zihoan zituen jabeekin batera, bere jabe ohiaren pisukidearekin topatu eta honekin gelditu zen arte.

Larunbatak

Kokapena

Istoria hau Gasteizen kokatzen da. Garaiaz datu zehatzik agertzen ez den arren, istorioan narratzen diren pertsonen estereotipo eta ohitura gehienak –ostegunetan parrandan ateratzea– kontuan hartuta, istorioa gaur egun kokatu daiteke.

Gaia

Txo txakurraren bizitzaren joan-etorriak bere jabearengandik ihes egin eta kale-txakur bilakatu ostean.

Argumentua

Txok bizitza ona zuen bere jabe Santirekin, bere jabearen pisukideak neskame bat kontratatzea erabaki zuen arte. Handik aurrera, bere jabeak berari baino kasu gehiago egiten zionez, etxetik ihes egitea erabaki zuen. Baina kale-txakurraren bizitza ez zen makala, jana eta lo egiteko lekua lortzea zaila baitzen. Horrek bultzatuta, Txok kalean aurkitutako beste zenbait jabe izaten zituen, bere hasierako jabearen bizilagunarekin bizitzen gelditu zen arte.

Istoria

Txo bizitza zoriontsuko txakurra zen: bere jabe Santik asko maite zuen, ligatzera atzeratzen zen, nahi adina janari jaten zuen... Baina egoera hura zeharo aldatu zen Floren, Santiren pisukideak, neskame Brasildar bat kontratatu zuenean. Izan ere, momentu hartaz geroztik, Santi egun osoa neskamearekin ematen zuenez, Txo bazterturik sentitu eta etxetik alde egitea erabaki zuen. Baina kale txakurraren bizitza ez zen makala: apenas jaten zuen, non lo egiterik ez zuen, beti txinatarrez jarraitua zegoen... Egoera horretan kalean bizi zen agure zarpail bat ezagutu zuen, Mr. Martin. Pertsona bitxi honekin Txok asko jaten ez bazuen ere, pozik zegoen. Hala eta guztiz ere, denboraldi baten ostean alde egin zuen txakur gazteak, bere bigarren jabearen txakur emearekin ez baitzen ondo konpontzen. Horren ostean, Txo tabernaz taberna ibili zen janari bila, halako batean, neska gazte batzuk etxean hartu zuten arte. Hala eta guztiz ere, txakurra ez zen inoiz ondo integratu emakumeen artean, emakume horietako baten jostailu sexuala sentitzen baitzen. Dena dela, bizilagun batek Vanessa delako neskarekin txortan ikusi ondoren, Txo etxetik ihes egin behar izan zuen berriro ere. Berriro kalean zegoela, Txok jabe berri bat aurkitu zuen: gazte espiritual eta antikapitalista bat. Hala eta guztiz ere, denboraldi bat harekin eta bere bizilagunekin eman ondoren, kalera bueltatu zen, non kale-txakur bizitzarekin jarraitu zuen egun batean Floren eta Vanessarekin topatu eta haiekin bizitzera joan zen arte.

Egituraketa

Autorea protagonistaz, hots, Txo txakurraz, baliatzen da istorioa linealki kontatzeko. Horrek liburuak bestelako mundu-ikuskerak bat izatea baimentzen du, izan ere, txakurraren ikuskerak kritiko eta logikoak kolokan jartzen ditu gazteriaren ohitura gehienak. Hala eta guztiz ere, narratzaileak giza kutsu bat du, batzuetan gizakiak ulertzeko gai delako.

Pertsonaiak

Txo: protagonista nagusia. Txakur gazte eta abenturazalea, etxetik ihes egiteko gai izan zena. Txakurra bada ere, askotan pertsona gisa aritu zen, hala nola, pizza jaterakoan, ligatzera ateratzerakoan, txortan egitean... Oso kritikoa zen gizakien izaerekin

Santi: Txoren lehenengo jabea, zeinarekin bizitza ia osoa eman zuen. Txakurra asko maite bazuen ere, txortan egiteagatik hau baztertzeraz heldu zen. Horregatik esan daiteke senez gidatzen usten den pertsona arduragabea zela.

Floren: Santiren pisu-kidea. Pertsona zatarra, Txo jotzea ondo deritzona. Hala eta guztiz ere, Txo kalean ikusterakoan, hartaz errukitu eta bere azken jabea bihurtzen da.

Mr. Martin: Txoren bigarren jabea. *The Maestro and his band* musika taldearen tronpeta-jolea. Kale gorrian bizi bazen ere, pertsona optimista zen, oso hiztuna eta, gehienetan, nekagarria.

Neska: Mr. Martinen xakurño emea. Ederra ez bazen ere, Txori morbo handikoa iruditzen zitzaion, nahiz eta, txakurrarentzat neska “puta biziotsu zikina” besterik ez zen.

Vanessa: Txoren hirugarren jabea. Neska gazte honek gizonekin esperientzia onik izan ez zuenez, Txorekin zoofilia probatzen hasi zen. Horregatik, Txorentzat “biziotsu zoroa” besterik ez zen.

Itziar: Txok taberna batean ezagutu zuen emakumezko mozoloa, Julenez maitemindurik zegoena.

Julen: Txoren laugarren jabea. Espirituala eta kapitalisten eta “pijoen” aurka bazegoen ere, bere lagunaren luxuzko gauzak erabiltzen zituen. Bere izateko era baldar eta nagiak bere bizikideak amorratzen zituen.

Baliabideak

Erabilitako baliabideei dagokienez, nabarmentzekoa da idazleak erabilitako narratzailea. Idazlea protagonista txakur bat izateaz eta honek hainbat jabe edukitzeaz baliatzen da gaur egungo gazteria ikuskera logiko batetik, hots, txakurraren ikuskeratik, kritikatzeko. Halaber, idazleak moldeak apurtzen ditu idazkera aldetik, txukuna eta formala ez delako. Azkenik, hitz gordinak nagusi diren idazkera hau aproposena da gazteak erakartzeko, erabilitako hizkerarekin identifikaturik sentitzen baitira.

Iritzia

Oso nobela bitxia dugu “Larunbatak”, izan ere, Arretzek kontakizun honetan erabilitako idazkera arrunt eta xeheak konplizitate kutsu bat sortzen du idazle eta irakurlearen artean, irakurlea idazkera horrekin identifikaturik ikusten baita. Halaber, kontalariaren aldetik ere nobela berezia da oso, istorioa txakur batek kontatzen baitu, eta ez da edonolako txakurra, ez. Txo, liburuaren protagonista, bestelako txakur bat da: pizza jaten du, ligatzera ateratzen da, sexua maite du ... Hala eta guztiz ere, pertsonaia guztien artetik –ia guztiak gizakiak– burutik sanoen dagoena dela esan genezake, beste gizaki guztiak trauma edo okerrak baitauzkate: neska zoofilika, txortan egiteko neskame brasildarra kontratatzen duen gizona, bizipenak oroitzen bizi den pertsona, maitemintzeko indarrak ez duena... Liburu honetan Arretzek gaur egungo gazteen bizitza fisikoa eta espirituala hain beste karikaturizatzen du, pentsa genezakeela liburu honekin idazle bizkaitarrak irakurlea entretenitzeaz gain, gaztediaren arazoak edota kezkek agerian utzi nahi dituela.

Era horretan, protagonista txakurra izatea primeran datorkio Arretxeri, pertsonaia guztiek txakurrari bere arazoez hitz egiten baitiote. Horri esker, idazleak bi helburu nagusi lortzen ditu: alde batetik, gizakia bere arrazako besteez fidatzen ez den izaki gisa ematea eta, bestetik, gazteen zalantzen eta kezken kontzientzia hartzea. Honen adibide garbia da “Eme artean” kapituluan emandako deskribapenak, zehaztasunez adierazten baita idazlearen ikuspuntua gaur egungo neskatilez: ia jaten ez duten eta telebistako programa jelipollenak ikusten dituzten anorexikoak.

Azkenik, aurreko guztia kontuan hartuta, *Larunbatak* dudarik gabe oso liburu gomendagarria da, ez soilik irakurlearen barre algarak sortarazteko gai delako, baita ere bizitza modu logikoago batean ikustea lor dezakeelako. Horregatik, esan genezake idazleak bestelako maisu obra bat idaztea lortu duela, zeinean hausnarketa eta barrea eskutik emanda doaz.

Bibliografia / Webgrafia

- *Larunbatak*, Jon Arretxe Perez. Elkar argitaletxea.
- Zuzentzailea: <http://www.xuxen.com/>
- Biografia: <http://www.bezeroak.com/wwwjonarretxe/default.cfm?atala=nor&hizkuntza=0&hizk=0>
- Datu gehigarriak: <http://www.jonarretxe.net/>
- http://eu.wikipedia.org/wiki/Jon_Arretxe
- Itzultzailea: http://www.euskara.euskadi.net/r59-15172x/eu/hizt_el/index.asp